

Lore Festa Fakultateko jaia ospatu da, bai Bidasoako eta baita Oñatiko campusean ere.

2011/05/15

Egun polita igaro genuen bi campus-etan. Programak zehaztuta zeuden bai Oñatin eta baita Bidasoan ere.

Oñatin jai giroa lasterketa batekin hasi zen, gero trikipotearekin jende gehiago elkartu zen eta ondoren bazkari popularrak ehun pertsonatik gora batu zituen. Bertan giro ezin hobea bizi izan genuen eta bazkaria bukatzean karaokea hasi zen, bertan parte-hartzaileek musika zaletasuna erakutsi zuten.

Azkenean musikak jarraitu zuen Dj batekin.

Bidasoan ere ekintza ugari izan genituen, kirolarekin hasiz eta magiarekin jarraituz. Poker lehiaketa bat ere izan genuen. Bazkaria ere oso animatua egon zen eta nola ez ongorengo mus txapelketa. Bidasoan ere bukatzeko kontzertu bat izan zuten "Planta Baja" taldearen eskutik.

Argazki gehiago ikusi nahi badituzue, bai Oñati eta bai Bidasoakoak sartu gure flickr-en:

<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza/>



Bazkari popularra Oñatiko campusean.